ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA Espedientea: 2025IK200016		**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS** Espedientea: 2025IK200016
ZARAUZKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAN HIZKUNTZAREN ETA KULTURARTEKOTASUNAREN IKUSPEGIA LANTZEN LAGUNDUKO DUEN PROIEKTUA GARATZEKO AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA EMANGO DITUEN ZERBITZUA **1.- Kontratuaren xedea eta norainokoa:** Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren helburua honakoa da: Zarauzko hezkuntza komunitatean hizkuntzaren ikuspegia lantzea, ikasleek errealitatearen hizkuntza kontzientzia hartu eta hizkuntza portaera ekologikoak gara ditzaten. Halaber, ikasle eta familia etorri berrien harrera eta integrazioa ere landuko da kultura arteko ikuspegi baten bidez. **2.- Proiektuaren oinarrizko irizpideak:** Kontratu honen bidez Zarauzko Udalak jarraipena eman nahi dio 2014az geroztik hezkuntza arloan soziolinguistika lantzeko egindako lanari, azken batez, Zarauzko euskararen erabileran jauzi kualitatibo bat emateko. Kontratu hau ikuspegi sistemiko eta komunitario batetik garatuko da, hezkuntza komunitate osoa inplikatuz. Euskararen normalizazioa gizarte eraldaketa prozesu sakona da, eta herriko haur eta gaztetxoak prestatu nahi ditugu euskaraz bizitzeko hautua egin dezaten, bizikidetza, eleaniztasuna eta erantzukizun soziala aintzat hartuta. Euskal hiztun aktiboak sortu nahi ditugu, eta horretarako, hizkuntza-egoerak kudeatzeako tresnak eta baliabideak emateaz gain, beren nahia eta motibazioa elikatuko ditugu. Lehenik eta behin, ikasleei soziolinguistikari eta hizkuntzen ekologiari buruzko ezagutza		**SERVICIO DE ASESORAMIENTO Y APOYO TÉCNICO PARA EL DESARROLLO DEL PROYECTO QUE CONTRIBUIRÁ A TRABAJAR LA PERSPECTIVA LINGÜÍSTICA Y DE INTERCULTURALIDAD EN LA COMUNIDAD EDUCATIVA DE ZARAUTZ** **1.- Objeto y alcance del contrato:** El objetivo del contrato que se formalice sobre la base de este documento es: Trabajar la perspectiva lingüística en la comunidad educativa de Zarautz, para que el alumnado tome conciencia lingüística de la realidad y desarrolle comportamientos lingüísticos ecológicos. Asimismo, se trabajará la acogida e integración del alumnado y las familias recién llegadas desde un enfoque intercultural. **2.- Criterios básicos del proyecto:** Mediante este contrato el Ayuntamiento de Zarautz quiere dar continuidad al trabajo realizado desde 2014 para trabajar la sociolingüística en el ámbito educativo, en definitiva, para dar un salto cualitativo en el uso del euskera en Zarautz. El contrato se desarrollará desde una perspectiva sistémica y comunitaria, implicando a toda la comunidad educativa. La normalización del euskera es un proceso profundo de transformación social, y queremos preparar a los niños, niñas y jóvenes del municipio para que opten por vivir en euskera, teniendo en cuenta la convivencia, el multilingüismo y la responsabilidad social. Queremos crear hablantes activos de euskera, para lo cual, además de proporcionar herramientas y recursos para gestionar situaciones lingüísticas, fomentaremos su motivación. En primer lugar, se transmitirá al alumnado conocimiento científico sobre sociolingüística y

zientifikoa transmitituko zaie, eta horren inguruko hausnarketa sustatuko da; horrek ikasleen hizkuntza-ohituretan, kontzientzia linguistikoan eta hizkuntza-aniztasunaren inguruko pertzepzio eta jarreretan eragin positiboa izatea espero da. Bestetik, euskararekiko atxikimendu emozionala indartuko da, hala nola euskararekiko eta euskal komunitatearekiko aurreiritzietan eraginez, komunitate sentsazioa sustatuz eta euskal kultura zeharlerro gisa landuz. Langintza honen baitan, ikasle guztien aukera berdintasuna bermatuko da. Euskara jatorri anitzeko herritarrak integratzeko bitarteko eraginkorra dela kontuan hartuta, bereziki arreta berezia eskainiko zaie ikasle berriei eta beraien familien harrerari, kultura arteko ikuspegitik arrazakeria eta bazterketa ekidinez eta komunitatea indartzeko asmoz. Horrek ezinbestean hezkuntza komunitate osoaren prestakuntza eta inplikazioa eskatuko du, baita komunikazioaren arloa bereziki lantzea ere. 3. **Lan-taldearen zereginak** Adjudikaziodunak aholkularitza, dinamizazio eta laguntza teknikoa emango dio Zarauzko Udalari ondoko jardueretan: **DBHko ikasleekin lanketa** • Ezagutza soziolinguistikoa lantzea eta hausnarketa sustatzea: hizkuntzen ekologia, hizkuntza-aniztasuna, aukera-berdintasuna, arnasguneak, Zarauzko datu soziolinguistikoak, identitate-aniztasuna, eusle izateko estrategiak, jarrera eta portaera linguistikoak, eta elkarbizitzarako arauak. • Ikasleen proaktibotasuna eta euskal hiztun aktiboen sorrera bultzatzea, eguneroko bizipenetan oinarrituta. • Ikasleen prestakuntza egokitu egingo da proiektua garatzen doan heinean, unean uneko beharrak kontuan hartuta.		ecología lingüística, y se promoverá la reflexión en torno a ello; se espera que esto influya positivamente en los hábitos lingüísticos, la conciencia lingüística y en la percepción y actitudes hacia la diversidad lingüística. Por otro lado, se reforzará el apego emocional hacia el euskera, actuando sobre prejuicios hacia el euskera y la comunidad vasca, fomentando el sentimiento de comunidad y trabajando la cultura vasca como eje transversal. En este marco, se garantizará la igualdad de oportunidades para todo el alumnado. Considerando que el euskera es un medio eficaz para la integración de personas de orígenes diversos, se prestará especial atención a la acogida del alumnado recién llegado y de sus familias, desde una perspectiva intercultural que combata el racismo y la exclusión, con el objetivo de fortalecer la comunidad. Esto requerirá necesariamente la formación e implicación de toda la comunidad educativa, así como trabajar especialmente el ámbito de la comunicación. **3.- Funciones del equipo de trabajo:** La empresa adjudicataria ofrecerá asesoramiento, dinamización y apoyo técnico al Ayuntamiento de Zarautz en las siguientes actividades: **Trabajo con el alumnado de ESO:** • Trabajar el conocimiento sociolingüístico y fomentar la reflexión: ecología lingüística, diversidad lingüística, igualdad de oportunidades, espacios vitales del euskera, datos sociolingüísticos de Zarautz, diversidad identitaria, estrategias para ser hablante activo, actitudes y comportamientos lingüísticos, y normas de convivencia. • Fomentar la proactividad del alumnado y la creación de hablantes activos de euskera basándose en experiencias cotidianas. • La formación del alumnado se irá adaptando a medida que se vaya desarrollando el proyecto, teniendo en

		cuenta las necesidades de cada momento.
Irakasleen prestakuntza • Haurreskola, HH, LH, DBH, Batxilergo eta Lanbide heziketako irakasleei prestakuntza soziolinguistikoa eskaintzea. • Ikasgelako egoera linguistikoen azterketa egitea eta irakasleen gaitasunak indartzea. • Prestakuntza hau herriko ikastetxe guztietan eskainiko da, zentro eta maila bakoitzaren beharren arabera. Eta egokitu egingo da proiektua garatzen doan heinean, unean uneko beharrak kontuan hartuta.		**Formación del profesorado:** • Ofrecer formación sociolingüística al profesorado de la Haurreskola, Educación infantil, Primaria ESO, Bachiller y Formación profesional. • Analizar las situaciones lingüísticas en el aula y reforzar las capacidades del profesorado. • Esta formación se ofertará en todos los centros escolares de la localidad, en función de las necesidades de cada centro y etapa. Y se irá adaptando a medida que se vaya desarrollando el proyecto, teniendo en cuenta las necesidades de cada momento.
Hizkuntzaren inguruko lanketa bateratua hezkuntza arloan • Zarautz Eleka egitasmoaren jarraipena eta egokitzapena. • Ikastetxeen eta Udalaren arteko koordinazioa bultzatzea. • Ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzea. Urteko hiru egun bereziak antolatzen laguntzea: Ama Hizkuntzaren Eguna, Aniztasunaren Eguna eta Euskararen Eguna.		**Desarrollo de una actividad conjunta en torno a la lengua en el ámbito educativo:** • Actualizar y fortalecer el proyecto Zarautz Eleka. • Fomentar la coordinación entre centros educativos y Ayuntamiento. • Impulsar la colaboración entre los centros. Organizar tres jornadas anuales: Día de la Lengua Materna, Día de la Diversidad y Día del Euskera.
Ikasle etorri berrien eta familien harrera eta integrazioa lantzea • Ikasketa komunitate osoak harrera horretan parte hartzeko estrategiak diseinatu eta martxan jartzea. • Euskararen bitartez ikasle etorri berriak eskolan integratzea izango da helburua, ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzeko. • Integrazioa prozesu bidirekzional gisa ulertuko da, eta horretan ikasketa komunitate osoaren inplikazioa eskatuko da. • Zurrumurruen aurkako sentsibilizazio eta prebentzio jarduerak proposatzea eta gauzatzea. Enpresa adjudikazioduna arduratuko da zeregin hauetako bakoitzaren diseinuaz eta planifikazioaz, dagokion materiala eta		**Acogida e integración del alumnado y familias recién llegadas:** • Diseñar y poner en marcha estrategias para que toda la comunidad educativa participe en dicha acogida. • El objetivo será integrar a los alumnos-as recién llegadas a través del euskera en la escuela, para garantizar la igualdad de oportunidades de todo el alumnado. • La integración se entenderá como un proceso bidireccional en el que se requerirá la implicación de toda la comunidad de educativa. • Proponer y realizar actividades de sensibilización y prevención contra los rumores. La empresa adjudicataria será responsable del diseño y planificación de cada una de estas tareas, de la elaboración de materiales y soportes,

euskarriak sortzeaz, proiektuaren koordinazioaz, lan-taldeen dinamizazioaz eta jarduera hauei loturiko gainerako esku-hartze zehatzez.		de la coordinación del proyecto, de la dinamización de los equipos de trabajo y de otras intervenciones relacionadas con estas actividades.
Etengabeko ebaluazioa egiteaz gain, prozesu osoa ere ebaluatu eta sozializatu egingo da. Era berean, prozesuaren sistematizazioa egingo da, batetik, bere indarguneak azpimarratzeko eta, bestetik, ahuleziak gaindituko dituen proposamen metodologikoak egiteko etorkizunerako.		Además de realizar una evaluación continua, evaluará y socializará todo el proceso. Asimismo, se sistematizará el proceso para, por un lado, subrayar sus fortalezas y, por otro, elaborar propuestas metodológicas de futuro que superen las debilidades detectadas.
Orokorrean, udal-arduradunek adierazitako jarraibide eta orientabideak beteko dira.		En general, se cumplirán las directrices y orientaciones señaladas por las personas responsables municipales.
Ikasturte bakoitzaren amaieran ikasturte bukaerako balorazio-txostena prestatuko da, besteak beste, hurrengo urterako neurri zuzentzaileak proposatuz.		Al finalizar cada curso, se preparará un informe de valoración final que incluirá propuestas de medidas correctoras para el año siguiente.
4.- Koordinazioa:		**4.- Coordinación:**
Proiektuaren diseinua eta garapena hezkuntzako eragileekin elkarlanean egingo da.		El diseño y desarrollo del proyecto se realizará en colaboración con los agentes educativos.
Uneoro koordinazioan arituko dira herri mailako Aroa planarekin eta Zarauzko Harrera protokoloarekin, eta ikastetxeetan bertan hizkuntzaren eta harreraren inguruan dauden proiektuekin. Horrek besteak beste, eragile hauekin elkarlan estua ekarriko du: udaleko euskara departamentua, immigrazio eta kultura aniztasunaren atala, ikastetxeetako arduradunak edo haiek izendatutako ordezkariak eta hezkuntza arloan diharduten gainerako eragileak (Euskararen Institutua, UEMA…).		En todo momento se coordinará con el Plan Aroa de ámbito local y el protocolo de Acogida de Zarautz, así como con los proyectos lingüísticos y de acogida existentes en los propios centros educativos. Esto supondrá, entre otros, una estrecha colaboración con el departamento de euskera del ayuntamiento, el área de inmigración y diversidad cultural, los responsables de los centros educativos o representantes por ellos designados y el resto de agentes que trabajan en el ámbito educativo (Euskararen Institutua, UEMA...).
Prozesuan zehar enpresa arduratuko da proiektuko eragile desberdinen (irakasleak, ikasleak, familiak, hezkuntza erakundeetako aditu eta langileak…) parte-hartze saioak dinamizatzeaz eta antolatzeaz, bai diseinu fasean, eta bai proiektuaren garapenean.		Durante el proceso, la empresa será responsable de dinamizar y organizar las sesiones de participación de los distintos agentes (profesorado, alumnado, familias, expertos y personal de entidades educativas...), tanto en la fase de diseño como en la de desarrollo del proyecto.
Adjudikaziodunak prozesuaren eskura jarriko ditu une bakoitzean beharrezkoak diren komunikazio- eta partaidetza-bide guztiak: aurrez aurrekoak, aplikazio digitalak, on line…		La empresa adjudicataria facilitará en todo momento los canales de comunicación y participación necesarios: presenciales, aplicaciones digitales, online...

Lantalde desberdinen osaera eta bileren aldizkakotasuna proposatuko du, koordinazioa eraginkorra izan dadin. Hala ere, adjudikazioduna Udalarekin bildu beharko da hala eskatzen zaionean.		Propondrá la composición y periodicidad de las reuniones de los diferentes grupos de trabajo para que la coordinación sea eficaz. No obstante, la empresa adjudicataria deberá reunirse con el Ayuntamiento cuando sea requerido para ello.
Koordinazioaren arduradun nagusiak udaleko Euskara arduraduna eta Immigrazio eta kultura aniztasunaren teknikaria izango dira.		Las personas responsables de la coordinación serán la responsable municipal de Euskera y el técnico de diversidad cultural.
5.- Memoriak eta lan-programazioa:		**5.- Memorias y programación:**
Kontratuak indarrean dirauen bitartean, eskatzen dizkion urteko memoria guztiak aurkeztu beharko dizkio esku-hartzeko lan-taldeak udalari.		Durante la vigencia del contrato, el equipo encargado de la intervención presentará al Ayuntamiento todas las memorias anuales requeridas.
Halaber, bere lanari buruzko eta zerbitzu-hartzaileei buruzko txosten guztiak aurkeztu beharko dizkio udalari, eskatuz gero, eta txosten horien konfidentzialtasuna gordeko du beti.		Asimismo, deberá presentar al Ayuntamiento, siempre que se lo solicite, todos los informes relativos a su labor y a los y las beneficiarias del servicio, manteniendo la confidencialidad de dichos informes.
6.- Lan-taldea:		**6.- Equipo de trabajo:**
Zerbitzua emateko, lan-taldea osatuko da.		Para la prestación del servicio se conformará un equipo de trabajo.
Teknikari batek izango du talde profesionalaren ardura, eta bera izango da Udaleko teknikarien solaskidea.		Un técnico-a asumirá la responsabilidad del equipo profesional y será interlocutor-a con el personal técnico municipal.
Pertsona horretaz gain, gutxienez beste hiru langile atxikituko dizkio adjudikaziodunak kontratuari proiektuaren garapenerako.		Además de esta persona, la empresa adjudicataria incorporará al menos a tres personas más para el desarrollo del proyecto.
Langile guztiek C1 hizkuntza-gaitasuna izango dute.		Tendrán certificado un nivel C1 de competencia lingüística.
Ondorengo tituluren bat izatea eskatuko da: - Euskal Filologia, Soziologia edo Pedagogia graduak. Edo honako graduondoko edo masterrak: - HIZNET-Hizkuntza Plangintza Graduondoa - Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. Mendean - Hizkuntzen Kudeaketa Aro Globalean: Berrikuntza Gakoak Euskararen Biziberritzean - Kulturarteko hezkuntzan edota kulturartekotasunean		Se les exigirá estar en posesión de alguno de los siguientes títulos: - Grado en Filología Vasca, Sociología o Pedagogía. O los siguientes postgrados o másteres: - HIZNET-Prosgrado de Planificación Lingüística - Conocimiento, Gestión y Prácticas Lingüísticas del Euskera en el Siglo XXI - La Gestión de las Lenguas en la Era Global: Claves de la Innovación en la Revitalización del Euskera

espezializatutako garaduondoko edo masterrak. Lantaldea diziplina anitzekoa izango da. Lantaldea osatzen duten pertsonen artean arlo hauetako adituak egongo dira, derrigorrez: euskara biziberritzeko proiektuetan eta soziolinguistikan; hausnarketa saioetan eta parte hartzean; eta migrazioen inguruko bizikidetza proiektuetan, harreran, kultur aniztasunaren kudeaketan edota kulturartekotasunari lotutako proiektuetan. Gorago zehaztutako gutxieneko titulazioaz gain honako esperientzia eskatuko da aditua izateko: bi urteko esperientzia dagokion arloan erakunde publiko zein pribatuetan. DBHko ikasleekin zuzeneko lanketa egingo duten pertsonen kasuan, derrigorrez izan beharko dute adimen emozionalari buruzko formazioa (psikologia arloko formazioa, coach ikasketak, fazilitazio formazioa edo antzekoak), edo, bestela, gaztetxoen hizkuntza portaeran eragiteko egitasmoetan esperientzia egiaztatu beharko dute, gutxienez bi ikasturtetan. Formazioan, gutxienez, 40 ordutik gorako ikastaroak hartuko dira kontuan. Proiektuari atxikitako pertsonen curriculuma, bizitza laborala eta dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira, hemen jasotakoak egiaztatu ahal izateko. **7. EXEKUZIOA** Proiektuaren diseinua eta material prestaketa enpresak bere egoitzan egingo du. Hala ere, koordinazioa eta bestelako lan saioak Udalak zehaztutako lokaletan egingo dira. Egitasmo konkretuak tokian-tokian egingo dira. **8. BALIABIDE MATERIALAK** Zarauzko Udalak ez du bulego materialik, material informatikorik, ekiporik, inpresio lanetarako gailurik edota antzekorik jarriko adjudikaziodunaren esku.		- Posgrados o masteres especializados en educación intercultural y/o interculturalidad. El equipo de trabajo será multidisciplinar. Entre las personas que componen el equipo de trabajo habrá obligatoriamente personas expertas en proyectos de revitalización del euskera y sociolingüística; sesiones de reflexión y participación; y proyectos de convivencia migratorios, acogida, gestión de la diversidad cultural o proyectos relacionados con la interculturalidad. Además de la titulación mínima especificada anteriormente, se exigirá experiencia de dos años en entidades públicas o privadas en el ámbito correspondiente. Las personas que trabajen directamente con el alumnado de ESO deberán contar obligatoriamente con formación en inteligencia emocional (formación en psicología, coaching, facilitación, etc.) o bien, acreditar experiencia en proyectos dirigidos a incidir en el comportamiento lingüístico de las y los jóvenes,al menos dos cursos escolares. En la formación se tendrán en cuenta, al menos, cursos de más de 40 horas. Se deberán presentar los currículos, vida laboral y documentación correspondiente del personal adscrito al proyecto para verificar el cumplimiento de lo aquí establecido. **7.- EJECUCIÓN:** El diseño del proyecto y la preparación del material se realizarán en la sede de la empresa. No obstante, la coordinación y otras sesiones de trabajo se realizarán en los locales designados por el Ayuntamiento. Los proyectos concretos se realizarán en los lugares que corresponda. **8.- RECURSOS MATERIALES:** El Ayuntamiento de Zarautz no proporcionará material de oficina, material y equipos

		informáticos, dispositivos para impresión ni similares a la empresa adjudicataria.
Adjudikaziodunak, zerbitzuak hala behar izanez gero, bere baliabide material propioak jarriko ditu.		
Koordinazio lanetarako eta bestelako lan saioetarako beharrezkoak izango diren lokalak, berriz, Udalak utziko ditu.		La empresa adjudicataria deberá aportar sus propios recursos materiales si el servicio así lo requiere. Los locales necesarios para las labores de coordinación y otras sesiones de trabajo serán facilitados por el Ayuntamiento.